

Josune Bereziartu



Josune Bereziartu Urruzola, 1972ko urtarrilaren 19an jaio zen Goierriko Lazkaon herrian. Estatu mailako kirol eskaladako hainbat eta hainbat txapelketatan irabazi zuen, bere pasioa harkaitz eskalada zela erakutsiz eta demostratuz gaur egun arte. Bere lorpen garrantzitsuenak kirol eskaladan: lehen emakumea 8c-ko igobide bat eskalatzen, HonkyTonky (Araotz, 1998); munduko lehen emakume eta bakarra 8c+, 9a eta 9a/+eko ibilbideak eskalatzen, Honky Mix (Araotz, 2000), Bain de Sang (St.Loup-Suitza, 2002) eta Bimbaluna (St.Loup-Suitza, 2005) igobideak, hain zuzen ere. 2006 urteko apirilean Hidrofobia (Tarragona) ibilbidearekin munduko lehen emakume eta bakarra 8b+ eko ibilbide bat "bistaz" eskalatu bilakatu zen ere.

Pareta luzeetan eta alpinismoan ere murgildu zaigu, 2002an Pilar del Cantábrico (550 metro, 8a+) igobidea Naranjo de Bulnesen; 2004an Yeah Man (300 metro, 8b+) ibilbideko lehen igoerari ekin zion; 2006. urtean Ordesan hainbat ibilbide egin eta gero Divina Comedia (300 metro, 7c) igobidearen bistaz egindako lehen saio arrakastatsua burutu zuen. Alpinismo klasikoan Alpeetan, Walker ezproia (1200 metro, 6b) Grandes Jorasses mendian burutu zuen azken udaran.



ERIK OTEG AIGAZOK

IHES BERTIKALA

URTE dexente daramatzat kirol eskaladan. Hamazazpi hain zuzen ere, bihotzez, buruz eta hatzez, gogor, tinko eta zuzen, pausoz pauso beti aurrera ekinez, munduan zehar erronka moduan aukeratu ditudan bideak eskalatuz. Horrelaxe igaro ditut neure azkeneko urte hauek, baina aurreko beste 17 urteak ere kirolari lotuak igaro nituen, ikasketak eta festak albo batera utzi gabe, noski. Talde, errekor, marka, irabazle, baloi, futbol, lehiaketa... halako hitzez beteriko kirolak ziren hasierako haiek. Edozein igandetako arratsalde bakarti batean, ordea, telean bi neska ikusi nituen eskalatzen. Haiek ez ziren edozein eskalataile, eta neure barru-barruan hala-ko ukitu bat sumatu nuen. Ondoren, orduko kirol haiek baztertzeko nahia sentitu nuen. Neure izaera bakartia da, neure erabaki eta ardurak neure gain hartzeko eta ondorioei aurre egiteko izaera. Hamazazpi urterekin beste kirol haiek alde batera utzi eta "ihes bertikalaren" bidea hartu nuen: bete-betean murgildu nintzen mendian eta eskaladan.

Aurreko batean, lagun batekin nengoela, esan zidan "mendia" hitza geroz eta gehiago irteten zela nire ezpainetatik. Gainera, azken boladan, eskalataile definizioaz gainera "alpinista" titulutxo ere erantsi didate bromen artean. Izan ere, gure egungo gizarte hau definizio, klasifikazio, titular eta esaldi motzez elikatzen da geroz eta gehiago.

Azken urtean, kirol eskaladatik aparte mendiko beste zenbait jarduerak ere egin ditut, nire hamazazpi urte haietako gidoian sartzen ez ziren jarduerak. 2006ko udakoak, adibidez: Ordesan hainbat bide -besteak beste Divina Comedia, era askean- eta Alpeetan Grandes Jorasses ederreko Walker ezproia, alpinismo klasikoaren biderik esanguratsuene-

tako bat. Jarduera berri hauekin nire orain arteko "gidoia" alde batera utzi dudala-eta, sorpresa txiki bat hartu dute askok. Niri dagokidanez, udan bizi izandako abentura pertsonal horiek guztiz bete ninduten. Bizipen intentso haiek arrasto handia utzi zidaten, izan ere, kirol eskaladan ez bezala, jokoaren erdia alboan izan dudanarekin konpartitzea, sentimendu hori gozagarria eta indartsua da oso. Orduan zer... egiaz ez ote naiz hain bakartia? Udaran egini-ko eskalada haietan, mendiaren tontorrera ailegatzean, nahiz eta beldurra, hotza, penaldi ugari, arriskuak, behera jaisteko nahia... hori guztia sentitu, hantxe aurrean nituen

beste mendi haietako pareta luze haiek igotzeko gogoia ere nahasten zitaidan. Ametsak ote? Behin ere ez naiz, ordea, ameslaria izan; horretan ere kontraesanean harrapatu behar ote dut nire burua?

Bai, egia da, lagun horrek mendia hitzari buruz esandakoa, neure buruan behintzat zeharo azpimarratuta daukat. Eta gainera ideia eta sentimendu berri horiek han goran sortutakoak dira.

Kirol eskaladan sentimenduak, oso intentsitate handikoak baino areago, efimeroak bilakatu dira niretzat azken urteetan. Bide zail bat kateatu dudanean, beti nahi izan dut poztasun eta euforiazko momentuak motzak izatea, beti saiatu izan naiz sentimenduak apur bat indargabetzen,

arrakasta eta porrotaren tarte hori hurbildu nahian. Bide zail horien atzean oso lan gogorra egon dela konturatzen naiz, oso lan intentsoa, eta atzeko lan horren guztiaren arrastoa nire barruan geratu dela sentitu izan dut beti.

Hirugarren hamazazpialdira inguratu naiz eta oraingoan gidoi berri baten aurrean nagoela sentitzen dut, dena idazteko daukadala. Goiko lehen lerroan eta titulu antzera hitz bat: MENDIA. □

Bizipen intentso haiek arrasto handia utzi zidaten, izan ere, kirol eskaladan ez bezala, jokoaren erdia alboan izan dudanarekin konpartitzea, sentimendu hori gozagarria eta indartsua da oso.